



Donostiako Eskola Agenda 21 2014-2015 MUGIKORTASUNA Udalaren erantzunak





BIDEGORRIAK

Proposamena: Bidegorri sarea konpondu eta ondo mantendu. Adibidez, “Perla” inguruan, bidegorria zaborraz eta kristal zatitxoaz beterik egoten da.

Erantzuna: Hiriko Bidegorri-sarea ia osorik osatu da, eta 62 kilometro ditu. Konexio nagusiak sortu dira hiriko puntu estrategikoak lotzeko, ikastetxeak adibidez, eta inguruko herrien arteko konexioak ere osatu dira.

Sarearen mantentze-lana aldizka eta etengabe egiten da; garbiketari ere arreta berezia jartzen zaio, baina horretan zeresan handia dute herritarrek alde batetik, eta bideen Garbiketa Sailak bestetik.

P: Bidegorriak zabaldu auzoetara eta bide batez eskoletaraino: Aiete, Egia - Martutene, Bidebieta, Larratxo, Herrera, Txomin, Riberasekoa La Salle ikastetxeraino eta Hernani aldera... Leku aldapatsuetan bizikletentzako egokitutako igoigaluak jarri.

E: Hurrengo egingo diren proiektuak Aiete, Altza eta Egia auzoetako bidegorriak izango dira.

Ekialdetik Pasaia eta Errenteriarekin ere lotura egin da, gaur egun, mendebaldetik, Lasarterekin konexioa egiten dihardute, eta, laster, hegoaldetik, Astigarragarekin egingo da lotura, Txomin Enean 400 metroko tartea osatzea falta bada ere.

P: Bidegorriak ondo seinalizatu eta oinezko bideetatik ondo seinaleztatu.

E: Seinaleztapena egiterakoan, kotxea eta bizikleta eta bizikleta eta oinezkoen arteko halabeharrezko elkarbizitza, eta elkarren arteko errespetua oso kontuan hartzen dira.

P: Bidegorri inguruetan iturriak eta komunak jarri eta bizikletak aparkatzeko leku gehiago. Adibidez, Kontxan eta Aieten.

E: Sarean komun publikoak jartzeko proposamenari dagokionez, esan beharra dago hainbat komun daudela hirian zehar, hiriko oinezkoen Planoan ikus daitekeen moduan.

P: Oinezkoek bidegorriak zeharkatzeko zebra bideak jarri.

E: Oinezkoek, oinezkoentzako guneetan, bizikleta-erriak edozein lekutatik zeharka ditzakete, eta igarotzeko lehentasuna izango dute beti. Gainontzeko sarean oinezkoek gurutzatzeko lekuak seinalizaturik daude, kasu batzuetan oinezkoentzako guneekin, eta besteetan, semaforoarekin.

BIZIKLETA GARRAIOBIDE BEZALA

P: Aparkaleku seguruak jarri, baita eskola eremutan. Aparkaleku gehiago udaberri eta udaran behar izaten dira. Bestalde, utzitako bizikletak kendu, ingurua txukun mantenduz.

E: Hiriko ikastetxeek bizikletak uzteko lekuak dituzte; horiek ondo zaintzea guztioi dagokigu.

Aurten, bizikleta-aparkaleku pilotua jarri da Zurriolako hondartzan, eta oso harrera ona izan du.

P: Bizikleta aparkalekuen hiri mapa bat beharko litzateke.

E: Bidegorrien planoan ez dira sartzen, asko dira-eta. Informazio asko bistaratu behar da oso espazio txikian.

P: Bizikletak konpontzen ikasteko ikastaroak antolatu.

E: Udalak berak, Kalapie Elkarteak edota Gipuzkoako Foru Aldundiak, besteak beste, horrelako ikastaroak eskaintzen dituzte, aldizka, hirian.

P: Bizikleta elektrikoen gune gehiago hirian, baita auzoetan ere, baina prezioa murriztuz eta beraien mantenimendua hobetuz. Bide batez, denbora luzeagoz ibiltzeko aukera ere.

E: Gutxinaka egiten ari da, eta batzuk instalatu dira jada hiriko goialdean.

P: Dbizi sistema, Mugi edo LurraldeBus txartelekin ordaindu ahal izatea.

E: Orain egin daiteke, baina aurrez Dbizi-k Prim kalean duen bulegora joan eta MUGI txartela aktibatu behar da.

P: Gune bakoitzean erabiltzaileen azterketa egin.

E: Egiten da. Astero jasotzen dira datuak eta profila eta bizikletaren erabilera aztertzen dira.

P: Bestelako bizikletak alokatzeko guneak ere.

E: Bizikletak alokatzeko sistema Donostiako auzo guztietara iristea aurreikusita dago.

P: Oinezkoen lekutik bizikletaz ibiltzen direnei isunak jarri eta baita alderantziz ere.

E: Bizikletariak nola zirkulatzen duten, oinezkoekiko uzten duten distantzia, jende-pilaketak... zaintzen dira, eta azkeneko hilabeteetan zigorrak jartzen hasi dira.

P: Bizikletak erosteko diru-laguntzak eman.

E: Ez dago aurreikusita.

P: Hiriaren antolamendua bizikletaren ikuspuntutik burutzea.

E: Egiten ari da. Hiriko mugikortasuna bere osotasunean hartu behar da kontuan, eta desplazamendu-modu guztiak ere bai. Eta antolaketa horretan, bizikletak, urte asko daramatza integraturik.

GARRAIO PUBLIKOA

Garraio publikoa sustatzeko hainbat ideia proposatzen ditugu. Udalari hauen alde indar egiteko eskatzen diogu:

P: Prezioak hobetu, batez ere ume eta gaztetxoentzat, hauentzako doan edota tarifa bereziekin. Orohar, urteko zenbait egunetan doain, adibidez, mugikortasun astearen barne.

E: Tarifak ez dira udaletxearen menpekoak, tarifak Gipuzkoako Garraio Agintaritzak erabakitzen ditu. Hark kudeatzen du Mugi txartela eta hari bidaltzen dizkiogu zuen ekarpenak. Azpimarratzekoa da, aurten, tarifak ez direla garestitu, eta indarrean diraute 2014az geroztik. Umeek 5 urtetik aurrera ordaintzen dute, eta Mugi txartelarekin tarifa bereziak daude gazteentzat (“Gazteak txartela” 5-25 urte bitartean).

P: Autobusen maiztasuna zabaldu, adibidez, festetan eta gaueko zerbitzuetan eta bide batez, prezioa merketuz.

E: Gaur egun gaueko zerbitzu gehiago eskaintzen dira Aste Nagusian eta hiriko beste ekitaldi batzuetan. Prezioa Gipuzkoako Garraio Agintaritzak ezartzen du, eta hari bidaliko diogu zuen proposamena, azter dezaten.

P: Ordu-tegi zabalagoa eskaini, jendearen beharrei egokituta.

E: Atotxako estazio berria irekitzerakoan, linea batzuk aldatu eta beste batzuen ordutegia egokituko dela aurreikusita dago.

Zehazki goizeko lehen orduko eta gaueko azken orduetako ordutegiak luzatuko dira.

Hona hemen, hartuko den neurri horren adibideetako batzuk:

- Lanegunak: goizez, zerbitzuak, goizeko 07:30ak baino lehen hasiko lirateke 9, 23, 25, 26, 28, 32, 33 lineetan, eta gauez, 21:30etik aurrera amaituko lirateke 5, 9, 18, 23, 24, 33, 36, 37 eta 41 lineetan.

- Larunbatak: gauez, zerbitzuak, 21:30etik aurrera amaituko lirateke 16, 33, 36, 37 eta 41 lineetan.
- Jaiegunak: goizez, zerbitzuak, 10:00ak baino lehen hasiko lirateke 9, 14, 23, 25, 26, 29, 32, 33, 35, 36 eta 37 lineetan, eta gauez, 21:30etik aurrera amaituko lirateke 5, 9, 18, 23, 36, 37 eta 41 lineetan.

P: Hainbat lineen azterketa proposamena:
Aiete-Antiguo (35.) linearen maiztasuna aldatu.

E: Gaia aztertzen ari da.

P: 24, 29 eta 33. lineak gutxi daude, maizago jarri.

E: Momentuz ez dago aurreikusita.

P: 13 eta 14. lineak, murriztu daitezke.

E: Ez dagokio. 13 eta 14 lineek bidaiari asko dituzte.

P: Eskiera zehatza, autobus linea bat Herri Ametsa ikastolaraino luzatzea.

E: Ezin da egin; gune horretan garraio publikoa jartzeko aukerak aztertuko dira.

P: Autobusen arteko konexioak hobetu. Adibidez, Aieten.

E: Bestelako neurri batzuk, hala nola, 35-Arriola-Antiguo-Aiete-Ospitaleak linearen ordutegiak luzatzea edo Aieteko linea-konexioa hobetzea, udaletxearen baliabide ekonomikoen menpe daude.

P: Autobus geltoki gehiago.

E: Gaur egun, hirian, 540 autobus-geltoki daude; horrek esan nahi du, biztanleriaren %99,5ek duela geltokiren bat bere etxetik 300 metro baino gutxiagora.

P: "Topo"-ko obrak amaitu daitezen Loiolan.

E: Loiolako Topoaren lanei dagokienez, 2017rako amaituta egotea aurreikusten dutela jakinarazi digute.

P: Hiriaren kanpoaldean kotxeentzako doako aparkalekuak jarri eta horietatik erdigunera joateko autobus zerbitzua eskaini.

E: Proposamen hori betetzen da gaur egun; izan ere, hiriaren kanpoaldean, norabide ezberdinetan, doako aparkalekuak daude, beste herri batzuetatik datozenek kotxea han utzi eta autobusa har dezaten.



P: Hirigunean, arratsalde eta asteburutan, soilik zerbitzu publikoari eman sarrera, beti ere oinezkoen lehentasuna emanaz.

E: Asteburuetan, erdigunerako sarbideak, aste bitartean baino mugatuagoak daude, baina ezin zaio garraio publikoari sarbidea mugatu, adineko pertsona eta minusbaliatu asko erdigunera iristeko aukerarik gabe geldituko liratekeelako.

P: Tranbia jarri.

E: Hirian tranbia jartzeari dagokionez, orain dela urte batzuk eztabaidatu zen gai hori talde politiko guztien artean, eta Donostiarako aukera ona ez zela erabaki zen.

P: Orohar, hirien arteko autobus gehiago jarri edota ordutegi zabalagoa eta batik bat Iparraldeko herrialdeekin komunikazioa hobetu.

E: Orain dela gutxi handitu ditu Garraio Agintaritzak LurraldeBus-ek Gipuzkoako beste herri batzuetara eta Iparraldetik Baionara eskaintzen dituen zerbitzuak, hark duelako erabaki horiek hartzeko eskumena.

P: Autobusak elektrikoak edo hibridoak izan daitezela. “Energia garbiena” erabilera aztertu.

E: Udalarentzat oso garrantzitsua da erregaien kontsumoa eta CO2 emisioak murriztea, eta beraz, ibilgailu garbien alde egiten du. Donostiak uztailaz geroztik dauka %100ean elektrikoak den Europako lehenengo autobusa, eta 6 autobus hibrido ere baditu. Ingurumenarekin eta donostiarren bizi-kalitatearekin duen konpromisoaren adibide garbia.

GURE KALEETAN

Oinezkoentzako erraztasunak - Seinaleztapena hobetu.

P: Semaforoaren denbora luzatu eta muga fisikoak dituzten pertsonentzat semaforo egokiak jarri. Adibidez, itsuentzako semaforo egokituak gune guztietan. Martutenen, Loiolan... falta dira.

E: Semaforoaren sinkronizazioa eta azterketa etengabe egiten dira hiri osoan. Hala ere, puntu batzuk berrikusi egin beharko lirateke eta, ondo dauden beste batzuk, desprogramatu ere egin daitezke.

Baina egia da, ikastetxeen gertutasuna dela semaforoaren berde- eta gorri- denborak zehazterako orduan kontuan hartzen den lehentasuneko parametroa. Beste kasu batzuetan egin izan dugun moduan, ikastetxeren batetik gertu gurutzatzeko zailtasunak eragiten dizkizuen semaforoaren bat aurkitzen baduzue, kasu bakoitza aztertzeko prest gaude.

Itsuentzako sistemari dagokienez, hiri osoko semaforoek dute sistema hori; itsuak duen urrutiko agintearen bidez eragiten zaio gurutzatzera doan momentuan, eta, beraz, lehen begiratuan ez da erraza semaforoak horrelako sistemarik ote duen



jakitea. Aurreko sistema, soinua zuen pultsadorearena, orain dela urte batzuk kendu zen, inguruko bizilagunei eragozpenak eragiten zizkielako.

P: Kotxeentzako seinaleak hobetu, adibidez, zebrabideak ondo ikusteko moduan jarri, bidegurutzeetan semaforoak eta hauen denbora egokitzea, ispiluak jartzea behar den tokietan...

E: Semaforoak bezala, trafiko-seinaleak eta horien kokapena etengabe berrikusten dira hirian; auzo bakoitzeko errealitatearen arabera seinale horien funtzioa eta premia zehatza ere aztertzen dira.

P: Espaloi eta galtzadetan, oinezkoei garrantzi gehiago eman.

E: Espaloi eta zebra-bideetan oinezkoek dute beti lehentasuna.

P: Ondo lautu, koxkak kenduz, ez daitezten labainkorrak izan...

E: Espaloiak berrikusi eta ordezkatzeko udaletxearen ohiko zeregina da; Mantentze Sailak egiten du lan hori. Hala ere, espaloi batzuk aldatzeke daude oraindik ere.

P: Zabaldu, gurpildun aulki, haur kotxe eta erosketako gurditxoekin erraz mugitu ahal izateko.. Adibidez, Mons pasealekuan, Herrera auzoan, Heriz pasealekuan...

E: Espaloiak zabaltzerako orduan aurkitzen dugun zailtasunetako bat lur fisiko falta da. Beste kasu batzuetan, espaloiak, partikularrenak dira. Edozein kasutan, puntu zehatzen berri ematen badiguzue, Hiri Mantentze Sailarekin batera aztertuko dugu.

P: Autorik gabeko guneak sortu.

E: Autorik gabeko espazioak kolektiboen, bizilagunen...eskaeren arabera sortzen dira, horrelako peatonalizaziorik eta/edo plazarik nahi ez duenik ere bada-eta. Groseko San Francisco kaleko eta Mirakontxako Blas de Lezokoak dira berrienak.

P: Igogailua edo eskailera mekanikoak ipintzea auzo aldapatsuetara iristeko. Adibidez, Altza-Pasaia inguruan, Morlans-en eta Izostegi pasealekuan (Aiete).

E: Igogailuei eta malda handiko guneei erraztasunak emateari dagokienez, neurri hori betetzen joan da azkeneko urteetan, hiri osoan. Adibidez, Intxaurren, Altzan eta beste hainbat auzotan, mugikortasun bertikaleko sistemak dituzte; Aiete sistema horrekin lotzeko igogailua epe ertainean jarriko da. Proiektu hori urte honetan amaitzea espero dugu.

Hiriko gune askotan eskatu dute igogailua edo eskalera mekanikoak jartzea, Donostian gune altu eta maldatsu ugari ditugu-eta. Hala ere, gailu horiek jartzea eta horien mantentzea garestia da; horregatik, horien balorazioak oso azterketa zehatzak behar izaten ditu eta hiriaren baliabide ekonomikoen menpe daude.



P: Loiolako kultur etxe aurrean dagoen txikientzako parkea ez dagoela lekurik egokienean uste dugu, errepide eta aparkalekutik gertuegi, honek, Kutsadura eta arriskua dakartza..

R: Gune komuneko kokapena, Kultur Etxeak adibidez, Kultura Sailari dagokio, eta hark erabakitzen du non ireki daitezkeen horrelako guneak. Edozein kasutan, auzoko lanekin egoera hobetuko dela espero dugu.

ESKOLA INGURUA

P: Eskola inguruak egokitzea, oinezkoentzako guneak izan daitezzen, igogailuak hainbat kasutan...Eskaera zehatzak egin dira Heriz pasealekutik, Loiolatik eta Herreratik.

E: Ikastetxeetako sarreraren peatonalizazioak errazago egin daitezke diseinu berriko ikastetxeetan, bestelakoetan, gainontzeko bizilagunei eragin diezaieketen eragozpenak ere baloratu behar izaten direlako. Ahal denean egiten dira, La Herreran, adibidez, non sarbideak erabat mugatu zaizkien jangelako ibilgailuei.

P: Eskola aurrean semaforoak jarri beharrezkoa den tokitan, Intxaurren Ikastolan adibidez.

E: Gune horretan aforatzailea jarriko da, hau da Eguneroko Trafiko Intentsitatea eta bertatik igarotzen diren ibilgailuen abiadura neurtzen duen sistema jarriko da, gune horretako informazio gehiago jasotzeko.

P: Udaltzainei laguntzarekin kontatu ahal izatea eskolako sarrera irteera ordutetan. Adibidez, La Anunciata ikastetxean.

E: Udaltzain- eta ikastetxe-kopurua kontuan hartzen baditugu, hiriko ikastetxe guztietan zerbitzu hori egunero eskaintzea ezinezkoa da.

Sailak dituen lehentasunen artean lehenengoa ikastetxera doazen hauren segurtasuna da.

P: Eskara zehatzak: Guardaplata bideko zebra bide arriskutsua kentzea. Martuteneko errotonda apainagoa egotea gustatuko litzaiguke, loreekin. Egian semaforo gehiago, (Maria Reina eskolaren parean), baita Herrera auzoan ere, auzo honetan eskola ingurua arriskutsua baita. Loiola eta Erriberetan, eskola ingurua seinalezatu.

E: Aipatzen den Guardaplatako zebra-bideari dagokionez, bidean dauden bietako zeini buruz ari garen jakin beharko genuke.

Mugikortasun sailak, bere eskumenen barruan, ezin du lorarik jarri errepideetan. Parke eta lorategien arduradunek dute horren ardura.



La Salleko autobus-geltokiaren ondoan inguruan ikastetxea dagoela ohartarazten duen kartela dago. Inguruko lanak amaitzen direnean baloratuko dira berriro premia horiek.

Egia auzoari dagokionez, auzoaren zati handi bat berregituratzen ari da. Ikuspenari dagokionez, Maria Reina inguruan ere aldaketak egiten ari dira.

P: Ikastetxe inguruetan abiadura eta zarata gutxitzeko bideak aztertu. Adibidez, Nafarroa Etorbideko semaforoak sinkronizatu, ibilgailuen abiadura murrizteko eta oinezkoei denbora gehiago emateko. Pilar inguruan, Martutenen, abiadura murrizteko seinaleak jarri.

E: Kutsadura akustikoaren aurrean esku-hartzea Ingurumen Sailaren ardura da. Mugikortasunak zuen eskaera helarazi diezaioke.

Nafarroako Etorbidean semaforoak sinkronizatzeari dagokionez, guztiak batera irekitzeak ez luke ibilgailuen abiadura eta zarata arinduko, justu kontrako eragingo luke. Hala ere, sinkronismoek aipatutako bidea mozten duten bidegurutzeeziko trafikoa erregulatzeko funtzionatzen dute.

Martuteneko El Pilar Koloniari dagokionez, bide-zoruari eman zaion elkarbizitzeko-egitura dela-eta, ibilgailuek poliki zirkulatu behar dute, oinezkoen lehentasuna errespetatuz beti.

P: Intxaurrondo ikastolaren eskaera zehatza, bi urteko ikasleen irteera-atean dagoen aparkalekua kentzeko, edo lur azpian kokatu eta gainean lorategi bat jartzeko.

E: Gaur egun ez dago baliabiderik.

P: Igeldon bizi diren ikasleentzat mikrobusa.

E: Eskaeraren inguruko xehetasun gehiago beharko genuke, zuzen baloratu ahal izateko.

GARRAIOAK OROHAR

P: Autobus publikoak eta bizikletez gain, kotxe elektrikoak erabiltzeko aukerak zabaldu, hauek merketzearen alde egin eta horrela, hirietako kutsadura jaitziko litzateke.

E: Oinezko edo bizikleta-bidezko desplazamenduak bultzatzea, trafikoaren baretzea, ikastetxeetako sarbideetan esku-hartzea, bizikleta-errei berriak eta bizikleta publikoen postu berriak jartzeari dagokienez, Sail honek Europako hainbat proiektu ditu martxan, hirian desplazamendu-mota horiek bultzatzeko, besteak beste CIVITAS, SWICTH, STARS proiektuak... Proiektu guzti horietan, estrategia gisa, Europako beste hiri batzuekin paraleloan egiten da lan, eta esperientziak partekatzen dira esku-hartzerik arrakastatsuenak ezagutzeko.



Kotxe elektrikoaren gaiari dagokionez, udalari ez dagokiola uste dugu; aldiz, Gipuzkoako Foru Aldundiko, Eusko Jaurlaritzako edo Ministerioko udalaz gaidiko instantziek, Prever edo bestelako planen bitartez, ibilgailu horien erosketa diru-laguntza gisa saritu beharko luketela pentsatzen dugu.

P: Auto elektrikoak kargatzeko leku gehiago jarri.

E: Hirian kotxe elektrikoak kargatzeko dauden sei puntuak berriz ere aktibo egoteko lanean ari gara.

P: Motorrentzako aparkaleku gehiago.

E: Motorrentzako aparkalekuak erabiltzaileen eskaeren arabera baloratzen dira, eta azkeneko urteetan asko handitu da aparkaleku-kopurua hiri osoan.

P: Udaleko ibilgailuek sortzen duten CO2 kopuruaren arabera zuhaitzak apadrinatu, karbono eta oxigenoaren arteko oreka lortzeko.

E: Zuen eskaera Ingurumen Sailari helaraziko diogu, hiriko CO2 emisioak eta horien erregistroa handik kudeatzen dute-eta.

P: Ibilgailu zaharrekin kontrol gehiago, asko kutsatuz gero isunak jarri.

E: Ibilgailuen gaineko kontrola urtero egiten da IAT izeneko azterketaren bitartez; bertan kontrolatzen da ibilgailuaren emisio-mailak legea betetzen duen edo ez.

Bestetik, ingurumen-kostu altuenak dituzten ibilgailuen kontrola eta horiek arautzeko eskumena Eusko Jaurlaritzari dagokio, eta besterik ezean, Ingurumen Ministerioari.

KONTZIENTZIAZIO KANPAINAK BURUTU

Sentsibilizazio-kanpainei dagokienez, 2003. urteaz geroztik, urtero egiten dira, Eskola Bidea proiektuaren barruan, ikastetxeetara desplazamenduak oinez eta bizikletaz izan daitezen bultzatzeko. Zuetako askok kolaboratzen duzue proiektu horrekin, eta proiektu horren bitartez, eskolarako bidean esperientzia pilotu dibertigarrietan parte hartzeko aukera duzue.

Horrez gainera, ikasturte honetan, Diputazioko Mugikortasun Jasangarri eta Osasuntsuaren Mahai Teknikoak hainbat kanpaina antolatu ditu bizikletaz galtzadan ibiltzen ikasteko. Azpimarratzekoa da, hainbat kasutan, kanpainetakoren bat ezin izan dela bete, jende nahikorik agertu ez delako.

Neguan, Donostian, bizikleta erabiltzeko kanpaina bat ere egin da eta laster egingo da Bizikletaren Azoka.



Gainera, Udaltzaingoaren Bide Heziketa zerbitzutik lan-ildo berri bat estreinetu da: bizikletaren erabilaren inguruan kontzientziatzea lantzen du, bideko gainontzeko erabiltzaileekin elkarrenganako errespetuan oinarrituta. Ikastetxeetan harrera ona izan du, batik bat Bigarren Hezkuntzan.

Dbizi sistemari dagokionez, sistema hori erabiltzearen inguruko kanpaina espezifiko egin beharko da, gertatzen ari diren gehiegikeria eta lapurretei aurre egiteko; izan ere, gehiegikeria eta lapurreta horien ondorioz, erabiltzaile asko sistema erabili ezinik gelditzen dira.

P: Denon arteko begirunea beharrezkoa da.

E: Erabat ados gaude, bidearen erabiltzaileek gainontzekoen eskubideak errespetatu behar dituztelako, bizikletak, kotxeak edo oinezkoak izan.

P: Bizikletaren irudia hobetu.

E: Udaletxeak urtero berrindartzen du bizikletaren figura, hirian mugitzeko gailu jasangarri eta eraginkor moduan. Bizikletaren irudi on horretan bizikletariak ere badute zeresana, bidearen gainontzeko erabiltzaileak, oinezkoak batik bat, errespetuz lor daiteke-eta hori.

P: Ikastetxeetara oinez eta bizikletaz joateko ohitura sustatu.

E: Donostiako Udalak Eskola Bidea izeneko programa espezifiko du duela 12 urte; programa horrek eskola edo institutueta oinez edo bizikletaz joateko aukerak sustatzen ditu; ezagutzen ez duzuenok, programarekin bat egitera animatu nahi zaituztegu.

Mugikortasun Sailean zuen ikastetxeen segurtasun eta sarbideen inguruan helarazten dizkiguzuen eskaera guztiak aztertzen ditugu. Baina Donostiako udalak zuen kolaborazioa ere eskatzen du, ikastetxe-inguruak leku atsegin eta seguruak izan daitezen, eta horretarako eguneroko desplazamenduetan ohiturak aldatu eta familien kolaborazioa ezinbestekoak dira.

P: DBIZIren erabilera sustatzeko gazteentzako kanpaina berezia antolatu. Adibidez, egun bat doain eskainiz.

E: Zuen proposamena kontuan hartuko dugu eta Dbizi-ri helaraziko diogu, hark ere aintzat har dezan.

P: Oinezkoei bidegorriak errespetatzen erakusteko eta aparkalekuen berri emateko kanpaina.

E: Bizikleta-errien ibilbideak eta bizikletak aparkatzeko lekuak deskribatzen dituen plano espezifiko www.donostiamovildiad.com web orrian zein paperean aurki dezakezue.



P: Kotxearen erabilpen txarrari buruz nagusiak kontzientziatzeko kanpaina: gehiegizko erabilera, bide motzetarako ez da behar, gehiegizko abiadura...

E: Zuen proposamena aintzat hartu eta Sailean baloratuko dugu, eta Udaltzaingoari ere helaraziko diogu.

Amaitzeko, zuen proposamenak Mugikortasun Saitetik txertatzeaz gainera, hiria elementu bizia dela gogorarazi nahi dizuegu, etengabe eraldatzen ari den elementua, eta beraz, zuen eskaerak jasotzen jarraitzeko prest gaituzue, guztion mugikortasuna eta segurtasuna hobetze aldera.